Bestelako Xedapenak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

578

1/2010 EBAZPENA, urtarrilaren 13koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Eusko Jaurlaritzak egindako zenbait hitzarmen, beherago zehaztutakoak, argitaratzea xedatzen duena.

Eusko Jaurlaritzak zenbait hitzarmen sinatu dituenez gero, publikotasun egokia izan dezaten, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Ondoko hitzarmenen testua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea:

– Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen artean lankidetza-hitzarmena izenpetzeko baimena emateko dena. Helburua: 2009-2010rako Emakume eta Gizonen Berdintasunaren gaineko Masterraren V. Edizioa egitea. I. eranskin gisa agertzen da.

– Trafikoaren eta bide-segurtasunaren arloetan, Barne Ministerioarekin lankidetza-hitzarmena, II. eranskin gisa agertzen dena.

– Unibertsitateko Ikerketa Zerbitzu Orokorrak garatzen laguntzeko, Euskal Herriko Unibertsitatearekin hitzarmen bat, III. eranskin gisa agertzen dena.

– Vitoria-Gasteizko Udalarekin lankidetza-hitzarmena, hiriko trenbide-sarea eraberritzeko proiektuak aurreikusitako lekurako Geltoki Intermodal baten beharrak aztertu eta diseinuaren aurreproiektua egiteko. IV. eranskin gisa agertzen da.

– Euskal Autonomia Erkidegoko nekazal erroldaren behin betiko direktorioa prestatzeko, Euskal Estatistika Erakundearen eta Estatistikako Institutu Nazionalaren arteko lankidetza-hitzarmena, V. eranskin gisa agertzen dena.

– Kudeatzeko gomendioaren akordioa, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren artekoa, VI. eranskin gisa agertzen dena.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urtarrilaren 13a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JOSÉ LUIS ERREKATXO LABANDIBAR.

Otras Disposiciones

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

578

RESOLUCIÓN 1/2010, de 13 de enero, del Director de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, por la que se dispone la publicación de los Convenios celebrados por el Gobierno Vasco, que se indican.

Habiéndose suscrito por el Gobierno Vasco varios Convenios, y a los efectos de darles la publicidad debida,

RESUELVO:

Artículo único.– Publicar en el Boletín Oficial del País Vasco el texto de los siguientes Convenios:

– Convenio de colaboración entre Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer y la Universidad del País Vasco para la realización de la V Edición del Master en Igualdad de Mujeres y Hombres 2009-2010, que figura como anexo I.

– Convenio de colaboración con el Ministerio del Interior, en materia de tráfico y seguridad vial, que figura como anexo II.

– Convenio con la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) con el fin de colaborar en el desarrollo de los Servicios Generales de Investigación de la Universidad, que figura como anexo III.

– Modificación del convenio de colaboración suscrito con el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz para el estudio de necesidades y el anteproyecto de diseño de una Estación Intermodal en el emplazamiento previsto por la remodelación de la Red Arterial Ferroviaria de la ciudad de Vitoria-Gasteiz, que figura como anexo IV.

– Convenio de colaboración entre el Instituto Vasco de Estadística y el Instituto Nacional de Estadística para la elaboración del directorio definitivo del censo agrario en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma de Euskadi, que figura como anexo V.

– Acuerdo de encomienda de gestión entre el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, y el Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, que figura como anexo VI.

En Vitoria-Gasteiz, a 13 de enero de 2010.

El Director de la Secretaría del Gobierno
y de Relaciones con el Parlamento,
JOSÉ LUIS ERREKATXO LABANDIBAR.

I. ERANSKINA JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN URTARRILAREN 13KO 1/2010 EBAZPENARENA

EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN ETA EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN (UPV/EHU) ARTEKO HITZARMENA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO MASTERRAREN V. ALDIA (2009-2010) EGITEKO

Vitoria-Gasteizen, 2009ko urriaren 3an.

BILERAN EGON DIRA

Alde batetik, Maria Silvestre Cabrera andrea, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria.

Bestetik, Francisco Javier Quel López jauna, Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko dekanoa.

PARTE HARTU DUTE

Silvestre Cabrera andreak, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko egitura organikoa eta funtzionala ezarri zuen urriaren 31ko 214/2006 Dekretuaren 17.2.f) artikuluaren itzalpean.

Quel López jaunak, Euskal Herriko Unibertsitateko estatutuak onartu zituen abenduaren 23ko 322/2003 Dekretuaren 190. artikuluaren arabera dagozkion eskumenen itzalpean, dekretu horren 277., 278.1.a) eta 278.2 artikuluekin bat etorriz.

Nork bere karguen arabera –adierazi dira– parte hartu dute; eta, legez eman zaizkien ahalmenak baliatuz, lankidetza-hitzarmen hau formalizatzeko gaitasun osoa aitortu diote elkarri. Horiek horrela, hau

ADIERAZI DUTE

Lehenengoa.– Euskal Unibertsitateek emakumeen eta gizonen berdintasunerako eragile izateko prestakuntza espezializatua finka dezatela, eta genero-ikuspegia txerta dezatela beren diziplina eta jakintza-arlo guztietan; hori sustatzeko betekizuna ezartzen dio Autonomia Erkidegoko Administrazioari otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 33.3 artikuluak (4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa).

Helburu hori berori du Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planak, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko irailaren 26ko bilkuran onartuak.

ANEXO I A LA RESOLUCIÓN 1/2010, DE 13 DE ENERO, DEL DIRECTOR DE LA SECRETARÍA DEL GOBIERNO Y DE RELACIONES CON EL PARLAMENTO

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EMAKUNDE-INSTITUTO VASCO DE LA MUJER Y LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO PARA LA REALIZACIÓN DE LA V EDICIÓN DEL MASTER EN IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES 2009-2010

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de noviembre de 2009.

SE REÚNEN

De una parte, la Ilma. Sra. Dña. Maria Silvestre Cabrera, Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer.

De otra parte, D. Francisco Javier Quel López, Decano de la Facultad de Derecho de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea

INTERVIENEN

La Sra. Silvestre Cabrera, en virtud del artículo 17.2.f) del Decreto 214/2006, de 31 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer.

El Sr. Quel López, en virtud de las atribuciones que le corresponden de conformidad con el artículo 190 del Decreto 322/2003, de 23 de diciembre, por el que se aprueban los Estatutos de la Universidad de País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, en relación con el artículo 277, 278.1.a) y 278.2 del citado Decreto.

Intervienen en función de sus respectivos cargos, que han quedado expresados, y en el ejercicio de las facultades que les han sido legalmente conferidas, reconociéndose mutuamente plena capacidad para formalizar el presente Convenio de Colaboración y a tal efecto.

EXPONEN

Primero.– El artículo 33.3 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, impone a la Administración de la Comunidad Autónoma el deber de promover que las universidades vascas impartan de manera estable formación especializada de agente de igualdad de mujeres y hombres, así como que incorporen las perspectiva de género en todas sus disciplinas y áreas de conocimiento.

Este mismo objetivo contempla el IV Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por el Consejo de Gobierno en su sesión de 26 de septiembre de 2006.

Horren haritik, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legearen 2. artikuluarekin bat etorriz, Erakundearen helburu nagusia da emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzea, benetakoa eta eraginkorra, Euskal Autonomia Erkidegoko politikagintza, ekonomia, kulturgintza eta gizartearen alor guztietan. Emakunderen helburuak dira, beraz, sexuen arteko berdintasuna bideratzeko baldintzak sustatzea; berdintasun hori, izatez eta zuzenbidez, bere osotasunean garatzeko dauden oztopoak kentzea; eta emakumea baztertzeko edozein modu deuseztatzea Euskadin.

Lege horren 3. artikuluko g) idatz-zatian ezartzen denez, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko prestakuntza-planak diseinatzen eta proposatutako helburuak lortzen euskal administrazio publikoei aholkularitza ematea eta lankidetzan aritzea dagokio; halaber, Erakundearen helburuak lortzen laguntzen duten xede edo egitekoak dituzten elkarte, fundazio eta gainerako erakundeekin harremanak eta partaidetza-bideak ezartzea izendatzen zaio artikulu bereko ñ) idatz-zatian.

Horregatik, jarduera-planak garatu daitezen bultzatzen aritu da. Horiek gauzatzean agerian geratu denez, gizartean beste behar batzuk sortu dira, hau da, alor horretako profesionalak prestatzeko beharra dago, hain justu ere, emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko politikak administrazio publikoetan nahiz beste erakunde batzuetan ezartzeko behar den gaitasuna duten profesionalak.

Bestalde, 2/1988 Legearen 3.j) artikuluan Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari izendatzen zaio sustapen-neurriak ezartzea, hain justu ere, enpresak eta antolakundeak baliabide material, ekonomiko eta pertsonalez hornitzeko, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko plan, programa eta jarduerak egin ditzaten. Horiek hitzarmen honen hirugarren klausulan ezarritakoaren arabera gauzatuko dira.

Bigarrena.– Euskal Herriko Unibertsitateak (aurrerantzean EHU), irakaskuntza, azterketa eta ikerketaren bidez, goi mailako irakaskuntzaren zerbitzu publikoa ematen du Euskal Autonomia Erkidegoan. Hori dela eta, Euskal gizarteak bere historiaren eta eraldaketa sozio-ekonomiko, politiko eta kulturalen ondorioz dituen beharrak asebetetzen ahalegindu behar du.

EHUk nortasun juridiko propioa du, eta autonomia finantzario eta administratiboa du bere egitekoak betetzeko, Unibertsitatea Eraldatzeko Legearen 3. artikuluaren eta Unibertsitateko Estatutuen 4. artikuluaren arabera; eta horrek kontratuak eta hitzarmenak egiteko ahalmena ematen dio. EHUko Zuzenbide Fakultateak antolatzen du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko Masterra, berariaz dagokion titulu bat emateko.

Asimismo, de acuerdo con el artículo 2 de la Ley 2/1988, de 5 de febrero, sobre creación de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, el fin esencial del Instituto es la consecución de la igualdad real y efectiva de mujeres y hombres en todos los ámbitos de la vida política, económica, cultural y social del País Vasco. En este sentido, se fija como objetivos la promoción de las condiciones que faciliten la igualdad entre los sexos y la remoción de los obstáculos que impidan su plenitud de hecho y de derecho, así como la eliminación de todas las formas de discriminación de la mujer en Euskadi.

La mencionada Ley establece, en el apartado g) de su artículo 3, que le corresponde el asesoramiento y colaboración con las administraciones públicas vascas en el diseño de los planes de formación en materia de igualdad de mujeres y hombres y en el logro de las metas propuestas; asimismo el apartado ñ) del mismo artículo le atribuye el establecimiento de relaciones y cauces de participación con asociaciones, fundaciones y otros entes y organismos que en razón de sus fines o funciones contribuyan a la consecución de los objetivos del Instituto.

Por todo ello, viene impulsando el desarrollo de planes de actuación cuya puesta en práctica pone de manifiesto que las nuevas demandas sociales exigen la necesidad de formar profesionales en esta materia, con la capacidad necesaria para implementar las políticas a favor de la igualdad entre mujeres y hombres tanto en las administraciones públicas como en otras organizaciones.

Por otra parte, el artículo 3.j) de la Ley 2/1988, atribuye a Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, el establecimiento de medidas de fomento a fin de dotar a las empresas y organizaciones, de recursos materiales, económicos y personales para el desarrollo de planes, programas y actividades dirigidas a la consecución de la igualdad de mujeres y hombres, que se materializarán de conformidad con lo establecido en la cláusula tercera de este Convenio.

Segundo.– La Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (en adelante, UPV/EHU) presta el servicio público de la enseñanza superior en la Comunidad Autónoma del País Vasco, mediante la docencia, el estudio y la investigación, debiendo procurar la satisfacción de las necesidades de la sociedad vasca derivadas de su historia y de sus transformaciones socioeconómicas, políticas y culturales.

La UPV/EHU está dotada de personalidad jurídica propia, desarrolla sus funciones en régimen de autonomía financiera y administrativa, según el artículo 3 de la Ley de Reforma Universitaria y el artículo 4 de sus Estatutos, lo que le faculta para celebrar contratos y convenios. La Facultad de Derecho de la UPV/EHU es el centro docente que organiza el Master en Igualdad de Mujeres y Hombres a los efectos de conferir un título propio.

Hirugarrena.– 2001eko uztailaren 30ean, instituzio biek hitzarmen bat sinatu zuten, EHUko Gizarte-Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Sailak Emakumeen eta Gizonen Aukera-berdintasunari buruzko Masterraren lehen aldia (2001-2002 eta 2002-2003) abian jartzeko; Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak kofinantzatu zuen Masterra.

Lehenengo aldian Masterrak zein harrera ona izan zuen ikusita, egokitzat jo zen bigarren alditik aurrera laguntzetarako deialdi bi egitea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko Masterra deiturikorako, zeina bi ikasturtetan eman zen; hori hitzarmen baten bidez gauzatzea erabaki zuen EHUk.

Horiek horrela, aurreko ikasturteetan izandako esperientzia ona ikusita, eta alor horretako profesionalak prestatzen jarraitzeko, beharrezkotzat jo da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko Masterraren V. aldia egitea.

Laugarrena.– Masterrak 2009-2010 ikasturtea iraungo du, eta erdizka aurrez aurrekoa izango den formatu baten bidez, 60 ECTS kreditu garatuko ditu, modalitate eta formatu hauetan:

Kreditu Teorikoak	50
Komunak	45 (41 on line + 4 aurrez aurrekoak)
Espezialitatea	5
Kreditu Praktikoak	10

Aurreko aldiko edukiekin jarraituz, masterra moduluen bidez egituratuko da; moduluak 2009ko irailaren 28tik 2010eko ekainera emango dira:

I. modulua: Ezaguera teoriko feminista.

II. modulua: Berdintasunerako politikak.

II. modulua: Berdintasuna ezartzeko metodologia.

IV. modulua: Zeharkako gaikuntzarako tresnak.

Espezialitateen kredituak:

– Administrazio Publikoa.

– Antolakundeak eta enpresa.

– Hezkuntza.

Bosgarrena.– Bi erakundeek prestakuntza-jarduera horiek egin nahi dituztenez, Emakumeen eta Gizonen

Tercero.– En fecha 30 de julio de 2001 ambas Instituciones suscribieron un convenio para la puesta en marcha de la primera edición del Master de Agentes de Igualdad de Oportunidades entre Mujeres y Hombres 2001-2002 y 2002-2003 por parte del Departamento de Psicología Social y Ciencias del Comportamiento de la UPV/EHU, siendo Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer el organismo cofinanciador del Master.

A la vista de la buena acogida del Master en la primera edición, se estimó oportuno realizar a partir de la segunda edición, dos convocatorias de ayudas, del que se denominó Master en Igualdad de Mujeres y Hombres, impartido durante dos cursos académicos y cuya realización era acordada por la UPV/EHU mediante la suscripción del correspondiente Convenio.

En este marco, a la vista de la buena experiencia de los cursos anteriores y con el fin de seguir formando profesionales en la materia, se aprecia la necesidad de realizar una V Edición del Master en Igualdad de Mujeres y Hombres.

Cuarto.– El Master tendrá la duración del curso académico 2009-2010 y a través de un formato docente semipresencial, desarrollará 60 créditos ECTS en las siguientes modalidades y formatos docentes:

Créditos Teóricos	50
Comunes	45 (41 on line + 4 presenciales)
Especialidad	5
Créditos Prácticos	10

Continuando con los contenidos de la edición anterior, el Master se estructurará en torno a los siguientes módulos que se impartirán desde el 28 de septiembre de 2009 hasta junio de 2010:

Módulo I: Conocimiento teórico feminista.

Módulo II: Políticas de igualdad.

Módulo II: Metodología para la implementación de la igualdad.

Módulo IV: Herramientas de capacitación transversal.

Créditos de especialidades:

Administración Pública.

Organizaciones y empresa.

Educación.

Quinto.– Las dos entidades están interesadas en la realización de estas actividades formativas, por lo que

Berdintasunari buruzko Masterra egiten elkarlanean aritzea erabaki dute.

Adierazitako guztiagatik, alderdiek lankidetza-hitzarmen hau formalizatzea erabaki dute. Hauek dira

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Xedea.

1.– Hitzarmen honen xedea da Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen eta EHUren arteko lankidetza antolatzea, 2009-2010 ikasturtean Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasunari buruzko Masterra egiteko.

2.– Masterraren helburua izango da emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko profesionalak prestatzea, berdintasunaren aldeko politikak administrazio publikoetan nahiz beste erakunde batzuetan ezartzeko behar den gaitasuna izan dezaten.

Bigarrena.– EHUren konpromisoak.

1.– EHUk Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko Masterra garatzeko konpromisoa hartzen du. Horretarako, Euskal Herriko Unibertsitateak beharrezko diren bitarteko material eta giza baliabide guztiak jarriko ditu, hala nola, lokalak, irakasleak eta dokumentazioa, eta ikasketa-programak emango ditu.

2.– EHUk, ikasturtearen lehen hiruhilekoan, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundera bidaliko du matrikulatutako ikasleen egiaztagiria; eta 2010eko uztailaren 30a baino lehen, matrikulatutako pertsonen asistentziari eta aprobetxamenduari buruzko jarraipen-txostena eta Masterraren Ebaluazioari buruzko Txostena eta Memoria aurkeztuko ditu.

3.– Halaber, EHUk eskatzen zaion informazio eta agiri osagarri guztiak emango dizkio Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari; ikasleekin izandako edozein gorabeheraren berri emango dio; eta Jarraipen Batzordeari jakinaraziko dio masterraren garapenean eragina izan dezakeen edozein erabaki.

4.– Matrikulatutako pertsona guztiei Masterrean emandako kreditu bakoitzeko gehienez 60 euro kobratzeko konpromisoa hartzen du EHUk; matrikulatutakoak 20 lagunetik gora badira, Masterra egiteko ardura duten organoek jendaurreko prestakuntza-ekitaldi bat egingo dute Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekin batera, non berdintasunaren alorrean profesionalak prestatzeko jarduerak egingo diren.

Hirugarrena.– Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen konpromisoak.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak bere gain hartzen du Emakumeen eta Gizonen Berdinta-

deciden colaborar la realización del Master en Igualdad de Mujeres y Hombres.

Por todo lo manifestado, las partes acuerdan formalizar el presente Convenio de Colaboración en los términos de las siguientes,

CLÁUSULAS

Primera.– Objeto.

1.– El objeto del presente Convenio es articular la colaboración entre Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer y la UPV/EHU, para la realización de la V Edición del Master en Igualdad de Mujeres y Hombres, durante el curso académico 2009-2010.

2.– El referido Master tendrá por objeto promover la formación de profesionales en materia de igualdad entre mujeres y hombres con capacidad necesaria para implementar las políticas a favor de la igualdad entre mujeres y hombres tanto en administraciones públicas como en otras organizaciones.

Segunda.– Compromisos de la UPV/EHU.

1.– La UPV/EHU se compromete a desarrollar el Master en Igualdad de Mujeres y Hombres. Para llevar tal fin a buen término la UPV/EHU facilitará los medios materiales y personales necesarios, como locales, profesorado, documentación, e impartición de los programas de estudios.

2.– La UPV/EHU remitirá a Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer en el primer trimestre del curso certificación del alumnado matriculado, y con anterioridad al 30 de julio de 2010, presentará un informe de seguimiento de la asistencia y aprovechamiento académico de las personas matriculadas y una Memoria e Informe de Evaluación.

3.– Asimismo, se compromete a facilitar a Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer cuanta información y documentación complementaria le sea solicitada, a comunicar toda incidencia que surja en relación con el alumnado, así como a poner en conocimiento de la Comisión de Seguimiento cualquier decisión que se tome en todas aquellas materias que puedan afectar al desarrollo del Master.

4.– La UPV/EHU se compromete a cobrar a cada persona matriculada un máximo de 60 euros por crédito impartido en el Master; en el caso de que el número de personas matriculadas fuera superior a 20, los órganos responsables de la realización del Master organizarán junto con Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer un evento público de carácter formativo que tendrá por objetivo actividades de formación de profesionales en materia de igualdad.

Tercera.– Compromisos de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer.

Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer asume la obligación de colaborar en la financiación de la rea-

sunari buruzko Masterraren V. Aldiaren gauzapena eta garapena finantzatzen laguntzeko betekizuna: (hirurogei eta bat mila eta berrehun) 61.200 euro jarriko ditu, 2009ko Aurrekontu Arrunteko 09.0.1.4 7.01.0000.2.429.00.32230.001/S aurrekontu-sailaren kontura; horretarako, zuzeneko diru-laguntza ematea onartu du Jaurlaritzaren Kontseiluak.

Laugarrena.– Ordaintzeko modua.

Diru-laguntza zatika ordainduko da: hitzarmena sinatzen den unean diru-laguntzaren % 80 ordainduko da, eta bigarren zatia, gainerako % 20, matrikulatutako pertsonen asistentziari eta aprobetxamenduari buruzko jarraipen-txostena eta Masterraren Ebaluazioari buruzko Txostena eta Memoria Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundean jaso ondoren –hitzarmen honen 2. klausulan aipatzen dira txosten horiek–.

Bosgarrena.– Bermeak.

Hitzarmen honen bidez antolatzen den diru-laguntza abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren 2.2 artikuluan aipatzen diren konpromisozko bermeen mende geratuko da (698/1991 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzekoa, eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzekoa).

Seigarrena.– Bateragarritasuna.

Diru-laguntza hau bateragarria da beste edozein diru-laguntza edo laguntzarekin. Beste administrazio publiko edo erakunde batzuek diru-laguntzak edo laguntzak emanez gero edo beste diru-sarrera edo baliabide batzuk jasoz gero, lortzen diren guztirako zenbatekoek ez dute gainditzerik izango diru-laguntza hau emateko arrazoi den jardueraren gastua.

Zazpigarrena.– Itzulketa.

EHUk jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatzeko betebeharra konplitzen ez badu, ekarpen ekonomikoa horretarako baldintzak bete gabe lortzen badu, diru-laguntza emateko arrazoi izan zen xedea betetzen ez badu, ekarpen ekonomikoa emateko jarritako baldintzak betetzen ez baditu, edo oro har, hitzarmena suntsitzeko gorabeheraren bat gertatzen bada, jaso dituen zenbatekoak itzuli beharko ditu, laguntzak ordaintzeko unetik aurrera aplikatzekoak diren legezko interesekin batera. Horretarako prozedura ezarrita dago azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan (Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzekoa) eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan (Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzekoa, eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete

lización y desarrollo de la V edición del Master en Igualdad de Mujeres y Hombres, mediante la aportación de 61.200 EUROS (sesenta y un mil doscientos euros) con cargo a la partida presupuestaria 09.0.1.47 .01.0000.2.429.00.32230.001/S del Presupuesto ordinario de 2009, para lo cual el Consejo de Gobierno ha aprobado la concesión de una subvención directa.

Cuarta.– Forma de pago.

El pago se realizará de forma fraccionada abonándose en el momento de la suscripción de este convenio el 80% de la subvención, y el segundo pago por el 20% restante, una vez recibida en Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer el informe de seguimiento de la asistencia y aprovechamiento académico de las personas matriculadas, y una Memoria e Informe de Evaluación del Master, a que se refiere el punto 2 de la Cláusula segunda de este Convenio.

Quinta.– Garantías.

La subvención que se articula a través del presente Convenio queda sometida a las garantías relacionales a que se refiere el artículo 2.2 del Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y se establecen los requisitos y obligaciones de las Entidades Colaboradoras que participan en su gestión.

Sexta.– Concurrencia.

La presente subvención es compatible con cualquier otra subvención o ayuda. En caso de concurrencia con otras subvenciones o ayudas otorgadas por otras Administraciones Públicas o entidades o cualesquiera otros ingresos o recursos, los importes totales recabados no podrán superar el coste de la actividad para la que se concede esta subvención.

Séptima.– Reintegro.

En el caso de que la UPV/EHU incumpla la obligación de justificar la aplicación de los fondos percibidos, obtenga la aportación económica sin reunir las condiciones requeridas para ello, incumpla la finalidad para la que la aportación fue concedida, incumpla las condiciones impuestas con motivo de la concesión de la aportación económica o, en general, se produzca alguna de las circunstancias de resolución del convenio, vendrá obligada a reintegrar las cantidades concedidas más los intereses legales que resultaren de aplicación desde el momento del pago de las ayudas, siguiendo el procedimiento establecido al efecto en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco y en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comu-

beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzekoa). Diru-zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat hartuko dira lege-ondorio guztietarako.

Zortzigarrena.– Hitzarmenaren Jarraipen Batzorde Mistoa.

1.– Hitzarmen hau sinatzen den egunetik hilabeteko epean, Jarraipen Batzorde Misto bat eratuko da, helburu izango duena hitzarmenean xedatutakoa egitea eta koordinatzea, hitzartutako konpromisoak eta aurreikuspenak betetzen diren zaintzea, azarorik sortuz gero horiek ebaztea, eta oro har, hitzarmenaren indarraldian sor daitekeen gorabehera orori erantzutea.

2.– Hauek izango dira Jarraipen Batzorde Mistoko kide:

– Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria, edo eskuordetzen duena; lehendakari izango da.

– EHUko Zuzenbide Fakultateko dekanoa, edo eskuordetzen duena; idazkari izango da.

3.– Batzordeak 2009-2010 ikasturtean birritan egingo du bilera, ohiko bilkuran. Jarraipen Batzordeak azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. Tituluko II. Kapituluan kide anitzeko organoentzat aurreikusitako xedapenak bete beharko ditu (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena); berezitasun administratiboak, berriz, Batzordeak berak ezarriko ditu.

Bederatzigarrena.– Publizitatea eta hedapena.

Masterraren berri emateko informazio, komunikazio, publizitate eta jarduera orotan (iragarkiak, gutunak, liburuxkak, programak, Masterrean banatuko den materiala, bertaratze-egiaztagiriak, argitalpenak eta komunikabideetako komunikazioak …), Masterra Emakunde-Emakumearen Euskal Erakunderen lankidetzaz antolatu eta finantzatzen dela adierazi beharko da, eta Erakundearen logo ofiziala jarri beharko da, abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuan ezarritakoaren arabera (318/1999 Dekretua, Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunaren eskuliburua arautzekoa).

Hamargarrena.– Hitzarmena suntsitzea.

Hitzarmena suntsitu egingo da honelako gorabeheraren bat gertatzen denean:

a) Gutxienez 16 lagun matrikulatu ezean.

b) Sinatu duten alderdi biak ados daudenean; hilabete aurretik jakinarazi beharko da.

nidad Autónoma de Euskadi y se establecen los requisitos y obligaciones de las Entidades Colaboradoras que participan en su gestión. Las citadas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a todos los efectos legales.

Octava.– Comisión Mixta de Seguimiento del Convenio.

1.– En el plazo de un mes desde la fecha de suscripción del presente Convenio, se constituirá una Comisión Mixta de Seguimiento cuyo cometido será la realización, coordinación de lo dispuesto en el Convenio, la observancia de la ejecución de las previsiones y compromisos estipulados, la resolución de los conflictos que puedan plantearse y, en general, el atender todas aquellas cuestiones incidentales que puedan surgir durante la vigencia del Convenio.

2.– La Comisión Mixta de Seguimiento estará formada por las siguientes personas:

– La Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer o persona en quien delegue, que actuará como Presidenta.

– El Decano de la Facultad de Derecho de la UPV/EHU, o persona en quien delegue, que actuará como Secretario.

3.– La Comisión se reunirá durante el curso académico 2009-2010, dos veces en sesión ordinaria. La Comisión de Seguimiento se regirá conforme a las disposiciones previstas para los órganos colegiados en el Capítulo II del Título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y sus peculiaridades administrativas serán establecidas por la propia Comisión.

Novena.– Publicidad y Difusión.

Cualquier información y comunicación, publicidad y actuaciones de difusión del Master (anuncios, cartas, folletos, programas, materiales a entregar durante el desarrollo del Master, certificados de asistencias, publicaciones que se deriven y comunicación en los medios de comunicación…), hará constar que el mismo se organiza y financia con la colaboración de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, exhibiendo el correspondiente logo oficial del Organismo, de conformidad con lo establecido en el Decreto 318/1999, de 31 de agosto, por el que se regula el manual de identidad corporativa del Gobierno Vasco.

Décima.– Resolución del Convenio.

El presente Convenio se resolverá cuando se produzca alguna de las siguientes circunstancias:

a) Por falta de matriculación de un mínimo de 16 personas.

b) Por mutuo acuerdo entre las partes suscribientes, con un preaviso de un mes.

c) Hartutako konpromisoak alderdietako batek bete ezean.

Hamaikagarrena.– Hitzarmenaren izaera.

Hitzarmena administrazio arlokoa da. Beraz, hitzarmen honetatik eratortzen diren gaiak eta hitzarmena aplikatzerakoan sortzen direnak administrazioarekiko auzien jurisdikzioak aztertu eta ebatziko ditu, azken auzialdian.

Hamabigarrena.– Indarraldia.

Hitzarmen hau formalizatzen den egunetik 2010eko uztailaren 30era bitartean egongo da indarrean.

Ados daudela adierazteko, hala jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, interesatuek jatorrizko hiru aleak sinatu dituzte, idazpuruan esandako lekuan eta egunean.

Emakumearen Euskal Erakundea,
MARÍA SILVESTRE CABRERA.

Euskal Herriko Unibertsitatea,
FRANCISCO JAVIER QUEL LÓPEZ.

c) Por incumplimiento de los compromisos contraídos por cualquiera de las partes.

Undécima.– Naturaleza del Convenio.

Este Convenio tiene naturaleza administrativa, por lo que las cuestiones derivadas de este Convenio y surgidas de su aplicación serán conocidas y resueltas, en última instancia, por la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Doudécima.– Vigencia.

El presente Convenio entrará en vigor en la fecha de su formalización y mantendrá su vigencia hasta el 30 de julio de 2010.

Lo que, en prueba de conformidad, y para que así conste y produzca efectos donde proceda, lo firman en tres ejemplares originales las personas interesadas en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

Por el Instituto Vasco de la Mujer,
MARÍA SILVESTRE CABRERA.

Por la Universidad del País Vasco,
FRANCISCO JAVIER QUEL LÓPEZ.

II. ERANSKINA JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN URTARRILAREN 13KO 1/2010 EBAZPENARENA

LANKIDETZA HITZARMENA, BARNE ARAZOETAKO MINISTERIOAREN ETA EUSKO JAURLARITZAKO HERRIZAINGO SAILAREN ARTEKOA, TRAFIKOAREN ETA BIDE SEGURTASUNAREN ALORREAN

Madril, 2009ko azaroaren 2a.

HONAKO HAUEK BILDU DIRA

Batetik, Alfredo Pérez Rubalcaba jauna, Barne Arazoetako ministroa, kargu horretarako izendatu baitzuten apirilaren 12ko 436/2008 Errege Dekretuaren bidez (2008ko apirilaren 14ko BOE, 90. zk.), Ministerio horretako ordezkari gisa eta hitzarmenak sinatzeko eskumenekin, Estatuko Administrazio Orokorraren Antolaketari eta Funtzionamenduari buruzko apirilaren 14ko 6/1997 Legearen 13. artikuluko hirugarren atalean eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen Hamahirugarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera.

Eta bestetik, Rodolfo Ares Taboada jauna, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingoko sailburua, kargu horretarako izendatu baitzuten maiatzaren 8ko 5/2009 Dekretuaren bidez (2009ko maiatzaren 9ko EHAA, 86. zk.).

Bi alderdiek, adierazitako karguetan jardunez eta eman zaizkien eskumenak erabiliz dihardute, eta hitzarmen hau formalizatzeko beharrezkoa den legeahalmena onartu diote elkarri, eta horri lotuta honako hau,

ADIERAZI DUTE

Lehenengoa.– Trafikoari, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onartzen duen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren 5. artikuluak Barne Arazoetako Ministerioari esleitzen dizkiola trafikoaren eta bide-segurtasunaren alorreko eskumenak, Autonomia Erkidegoek beren Estatutuetan beren gain hartuta dituztenen kaltetan izan gabe. Aipatu Legearen 6. artikuluak adierazten du eskumen horiek Barne Arazoetako Ministerioak egikaritzen dituela Trafiko Buruzagitza Zentrala deitutako Organismo Autonomoaren bitartez.

Barne Arazoetako Ministerioaren oinarrizko egitura organikoa aldatzen eta garatzen duen uztailaren 11ko 1181/2008 Errege Dekretuaren 12. artikuluan zehazten dira hari dagozkion funtzioak.

ANEXO II A LA RESOLUCIÓN 1/2010, DE 13 DE ENERO, DEL DIRECTOR DE LA SECRETARÍA DEL GOBIERNO Y DE RELACIONES CON EL PARLAMENTO

CONVENIO DE COLABORACIÓN CON EL MINISTERIO DEL INTERIOR EN MATERIA DE TRAFICO Y SEGURIDAD VIAL

En Madrid, a 2 de noviembre de 2009.

REUNIDOS

De una parte, D. Alfredo Pérez Rubalcaba, Ministro del Interior, cargo para el que fue nombrado por Real Decreto 436/2008, de 12 de abril (BOE núm. 90, de 14 de abril de 2008), en su condición de representante de este Ministerio y con competencias para la firma de convenios en virtud de lo dispuesto en el apartado tercero del artículo 13 de la Ley 6/1997, de 14 de abril, de Organización y Funcionamiento de la Administración General del Estado y a la Disposición Adicional Decimotercera de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Y de otra parte, D. Rodolfo Ares Taboada, Consejero de Interior del Gobierno Vasco, cargo para el que fue nombrado por Decreto 5/2009, de 8 de mayo (BOPV núm. 86, de 9 de mayo de 2009).

Ambas partes, que actúan en función de sus respectivos cargos y en el ejercicio de las facultades que a cada uno les están conferidas, se reconocen, mutua y recíprocamente, capacidad legal necesaria para la formalización del presente Convenio y, a tal efecto,

EXPONEN

Primero.– Que el artículo 5 del Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo, por el que se aprueba el texto articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, atribuye al Ministerio del Interior competencias en materia de tráfico y seguridad vial, sin perjuicio de las que tengan asumidas las Comunidades Autónomas en sus propios Estatutos. El artículo 6 de la citada Ley determina que esas competencias las ejerce el Ministerio del Interior a través del Organismo Autónomo Jefatura Central de Tráfico.

En el artículo 12 del Real Decreto 1181/2008, de 11 de julio, por el que se modifica y desarrolla la estructura orgánica básica del Ministerio del Interior, se especifican las funciones que le corresponden.

Bigarrena.– Urriaren 15eko 3256/1982 Errege Dekretuaren bitartez erabaki zela Euskal Autonomia Erkidegoari transferitzea Estatuaren zerbitzu batzuk, trafikoari eta ibilgailuen zirkulazioari buruzko estatuko legeria egikaritzearen alorrean.

Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailaren mende dagoen Trafiko Zuzendaritzak egikaritzen ditu gai horri lotutako eskumenak aipatu Autonomia Erkidegoaren eremuan, eta eskumen horiek Herrizaingo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuaren 11. artikuluan zehaztuta daude.

Hirugarrena.– Trafiko Buruzagitza Zentrala Organismo Autonomoak eta Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak trafikoaren kudeaketaren alorreko eskumenak esleituta dituztela beren hurrenez hurreneko lurralde-eremuetan. Horien helburua da ibilgailuen zirkulazioaren portaera, arintasuna eta segurtasuna hobetzera eta bideen erabiltzaileei hobeto informatzera bideratutako ekintzak garatzea.

Bereziki, trafikoaren zaintza, erregulazio, kudeaketa, kontrol eta informaziorako esleituta dituzten eskumenak gauzatzeko, bi organismoek Trafikoaren Kontrol eta Kudeaketarako Sistemen eta Komunikazioen Sare bat baliatzen dute, eta horien artean daude SOS zutabeen bidezko komunikazioko azpi-sistemak, datuak hartzeko estazioak, CCTV, errepideetako aldagai atmosferikoen sentsoreak (SEVAC) eta mezu aldakorreko panelak.

Kontuan izanik trafikoa etengabea dela eta ez duela muga administratiborik eta sistema horiek Administrazio Publiko desberdinenak direla, beharrezkoa da harreman jakin batzuk ezartzea beren eskumenak erabiltzen dituztenean eraginkortasun eta efizientzia handiagoa lortzeko, eta horren ondorioz zerbitzu hobea eskainiko zaie herritarrei.

Laugarrena.– Trafiko Buruzagitza Zentrala Organismo Autonomoak eta Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak eskumenak dituztela beren lurralde-eremuetan istripuei buruzko datuak biltzeko eta jarduera-adierazleak lantzeko, eta horregatik beharrezkoa dela horiek lantzeko irizpideak bateratzea eta informazioa elkarren artean arin trukatzea, plangintza eta erabaki-hartzea errazteko eta gai horri buruz nazioartean dauden errekerimenduak betetzeko. Era berean, bi administrazioek bide-segurtasunaren alorrean egin ditzaketen azterlan edo ikerketa guztietatik eratorritako jakintzaren truke arina sistematizatzen da, herritarren ohiturak eta portaerak hobeto ezagutzeko.

Bosgarrena.– Trafiko Buruzagitza Zentrala Organismo Autonomoak eta Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak diziplinaren zaintza eta kontrolera-

Segundo.– Que mediante el Real Decreto 3256/1982, de 15 de octubre, se acordó el traspaso a la Comunidad Autónoma del País Vasco de una serie de servicios del Estado en materia de ejecución de la legislación estatal sobre tráfico y circulación de vehículos.

La Dirección de Tráfico, órgano dependiente del Departamento de Interior del Gobierno Vasco, ejerce las competencias en esta materia en el ámbito de la citada Comunidad Autónoma, las cuales se detallan en el artículo 11 del Decreto 471/2009, de 28 de agosto, por el que se regula la estructura orgánica y funcional del Departamento de Interior.

Tercero.– Que el Organismo Autónomo Jefatura Central de Tráfico y la Dirección de Tráfico del Gobierno Vasco tienen atribuidas competencias en materia de gestión del tráfico en sus respectivos ámbitos territoriales. Su finalidad es el desarrollo de acciones tendentes a la mejora del comportamiento, fluidez y seguridad de la circulación de vehículos y a la mejor información de los usuarios de las vías.

En particular, para el ejercicio de las competencias que tienen asignadas en materia de vigilancia, regulación, gestión, control e información del tráfico, los dos Organismos disponen de una red de Comunicaciones y Sistemas de Control y Gestión de Tráfico, entre los que se encuentran los subsistemas de comunicaciones por postes SOS, estaciones de toma de datos, CCTV, sensores de variables atmosféricas en carreteras (SEVAC) y los paneles de mensaje variable.

Habida cuenta de que el tráfico es continuo y no conoce de fronteras administrativas y que los referidos sistemas pertenecen a Administraciones Públicas distintas, resulta necesario establecer determinadas relaciones entre ellas para lograr una mayor eficacia y eficiencia en el ejercicio de sus competencias que al final redundará en un mejor servicio a los ciudadanos.

Cuarto.– Que el Organismo Autónomo Jefatura Central de Tráfico y la Dirección de Tráfico del Gobierno Vasco tienen atribuidas competencias en la recogida de datos de los accidentes y en la elaboración de los indicadores de actividad en sus respectivos ámbitos territoriales por lo que se hace necesaria la armonización de criterios en su elaboración y la agilidad en el intercambio de la información a fin de facilitar la planificación y la toma de decisiones y atender los requerimientos internacionales en la materia. Así mismo se sistematiza el ágil intercambio del conocimiento derivado de cuantos estudios o investigaciones puedan realizar ambas administraciones en el ámbito de la seguridad vial para un mayor y mejor conocimiento de los hábitos y comportamientos de los ciudadanos.

Quinto.– Que el Organismo Autónomo Jefatura Central de Tráfico y la Dirección de Tráfico del Gobierno Vasco tienen atribuidas competencias en

ko eskumenak eta horiei dagozkien informazio-, kontzientzia- eta hedapen-kanpainak egiteko eskumenak esleituta dituztela beren lurralde-eremuetan, eta horregatik, elkarren arteko jardunak sortzen dituen sinergiak aprobetxatzeko xedez, beharrezkoa da koordinatuta jardutea bideen erabiltzaileen artean portaera zuhurragoak lortzeko oinarrizkotzat eta funtsezkotzat jotzen diren alderdietan.

4.– Hitzarmenaren iraupena.

Hitzarmen hau sinatu eta biharamunean sartuko da indarrean eta indarrean egongo 2011ko abenduaren 30era arte.

5.– Gestio-organoa.

Hitzarmen honen gestioa Zientzia eta Politikarako Zuzendaritzari dagokio.

6.– Jarraipena.

Zientzia Politikarako Zuzendaritzak, planteatutako ekintzen eta lortutako emaitzen jarraipena eta ebaluazioa egingo du. Horretarako, EHUk exekuziotxostenak eta emaitzen adierazleak aurkeztu beharko dizkio eta gestio-organoko pertsonal teknikoak EHU-

1) Una memoria que describa las características y funcionalidades de los espacios habilitados, los equipamientos e infraestructuras adquiridos, su puesta a punto y nivel de satisfacción con las funcionalidades, así como el régimen de gestión para cada una de ellas, donde se manifieste el tipo de organización del uso y la disponibilidad de personal operador ya sea compartido o en exclusiva, así como el sistema o tipo de mantenimiento establecido para cada equipo que garantice en todo momento su óptimo y más eficiente funcionamiento.

2) Un certificado que acredite la inclusión de cada uno de los equipamientos en el inventario general de la UPV/EHU (localización física y posición en el inventario).

3) Copia de las garantías de las obras realizadas.

Además de la ejecución correcta del gasto y del uso y mantenimiento adecuado de los equipamientos científicos deberá expresar la contribución de los espacios habilitados, las infraestructuras y equipamientos adquiridos al cumplimiento de los objetivos previstos con relación a la investigación de excelencia y colaborativa con el sector socio-económico. Para ello, a los 24 meses de la firma del convenio, la UPV/EHU proporcionará al órgano gestor del convenio, información sobre los proyectos y programas de investigación en los que se utilizan los equipamientos adquiridos con cargo al convenio, los agentes de investigación ajenos a la UPV/EHU que han accedido al uso de los equipamientos y los que han colaborado y/o participado en los proyectos y programas de investigación que utilizan los equipamientos.

El Departamento de Educación, Universidades e Investigación se compromete a realizar el pago de la cantidad establecida en el presente y a realizar el seguimiento de la eficiencia y eficacia en la gestión y utilización de los espacios habilitados y de las infraestructuras y equipamientos científicos con relación a los objetivos de investigación de excelencia, cooperación con el resto de agentes de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación y transferencia de conocimiento a los sectores socio-económicos de Euskadi.

4.– Duración del convenio.

El presente convenio entrará en vigor el día siguiente de su firma y extenderá su vigencia hasta el 30 de diciembre de 2011.

5.– Órgano gestor.

Corresponde a la Dirección de Política Científica la gestión de este convenio.

6.– Seguimiento.

La Dirección de Política Científica realizará el seguimiento y la evaluación de las actuaciones planteadas y de los resultados logrados, a partir de los informes de ejecución e indicadores de resultados presentados por la UPV/EHU, así como por las inspeccio-

ko Ikerketa Zerbitzu Nagusietan inspekzioak egingo ditu.

7.– Hitzarmena bertan behera uztea.

Hitzarmen hau bertan behera utzi ahalko da honako egoera hauetako bat ematen bada:

a) Hitzarmena sinatu duten aldeak ados jartzea, hilabete lehenago abisua emanda.

b) Aldeetako edozeinek hartutako konpromisoak ez betetzea.

c) Hitzarmenean zehaztutako indarraldia amaitzea.

8.– Hitzarmena ez betetzearen ondorioak.

Hitzarmen hau sinatu duten aldeetako edozeinek hitzarmenean zehaztutako betebeharrak ez betetzeak hitzarmena bertan behera uztea ekarriko du eta ondorioz esleitutako zenbatekoak itzuli egin beharko dira, kopuru horiei legez dagozkien interesekin batera.

9.– Informazioa zabaldu eta hedatzea.

Diruz lagundutako azpiegitura eta ekipamenduekin lotutako jarduera guztietan, EHUk Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren babesa egon dela adieraziko du.

10.– Bateragarritasuna.

Hitzarmen honen xede diren ekintzen finantziazioa bateragarria da helburu bererako lortutako beste laguntza, diru-laguntza eta baliabideekin, betiere guztira lortutako diru-laguntzak jardueren kostua gainditzen ez badu. Horretarako, EHUk erositako ekipamenduak edo egingo dituen lanak direla-eta hitzarmen honen bitartez jaso dituen diru-laguntzen aitorpena egin beharko du, bai finantziazioaren bai egikaritzearen epeak adieraziz.

Hitzarmen hau sinatzeko kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, eta, helburu bererako beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuek emandako bestelako diru laguntzarik jasotzen bada, hitzarmenean zehaztutako zenbatekoa aldatu ahalko da, betiere, hitzarmenean zehaztutako gutxieneko baldintzak betetzen direla zainduta.

11.– Arau ordezkatzaileak.

Hitzarmen honetan jasota ez dagoenerako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua aplikatuko da, Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Aurrekontuen pentzutan ematen diren diru-laguntzen erregimenari dagokiona.

nes que personal técnico del órgano gestor realice en los Servicios Generales de Investigación de la UPV/EHU.

7.– Resolución del Convenio.

El presente convenio podrá resolverse cuando se produzca alguna de las siguientes circunstancias.

a) Mutuo acuerdo entre las partes suscriptoras, con un preaviso de un mes.

b) Incumplimiento de los compromisos contraídos por cualquiera de las partes.

c) Por cumplimiento del período de vigencia establecido en el convenio.

8.– Efectos de incumplimiento.

El incumplimiento de las obligaciones señaladas por parte de alguna de las partes suscriptoras del presente convenio, dará lugar a la resolución del mismo y a la consiguiente devolución de las cantidades asignadas, más los intereses legales que procedan.

9.– Publicidad y difusión de la información.

La UPV/EHU indicará el patrocinio del Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco en todas las actividades relacionadas con las infraestructuras y equipamientos subvencionados.

10.– Compatibilidad.

El importe de la financiación de las acciones objeto de este convenio es compatible con otras ayudas, subvenciones o recursos, destinados para la misma finalidad, siempre que de ello no se derive sobre financiación. Para ello la UPV/EHU deberá realizar una declaración de las financiaciones concurrentes con relación a los equipamientos que va a adquirir y las obras que va a acometer que serán financiados a través de este convenio, manifestando los plazos en los que se realizará tanto la financiación como la ejecución.

La alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la firma de este convenio, y, en todo caso, la obtención concurrente de ayudas y subvenciones otorgadas por otras Administraciones o entes públicos o privados, en su caso, de cualesquiera otros ingresos o recursos para la misma finalidad, podrá dar lugar a la modificación del importe del convenio, siempre que se salvaguarden los requisitos mínimos establecidos en el mismo.

11.– Normas subsidiarias.

En todo lo no previsto en el presente convenio será de aplicación lo establecido en el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, referido al régimen de las subvenciones con cargo a los Presupuestos de la Administración de la Comunidad Autónoma.

12.– Hitzarmenaren izaera eta interpretazioa.

Hitzarmen hau administrazio-mailakoa da eta, beraz, dagokion legediak arautuko du bere interpretazioa eta garapena. Hitzarmen honetatik eratorritako auziak eskumena daukaten administrazio-auzietako epaitegiek ezagutu eta ebatziko dituzte.

Eta honako agiri honetan adierazitakoarekin adostasuna eta onespena agertzeko, aldeek dokumentu hau egin eta sinatu dute, bi aletan eta idazpuruan adierazitako toki eta datan.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea,
IÑAKI GOIRIZELAIA ORDORIKA.

I. ERANSKINA

Ekipamendu zientifikoaren erosketa eta gune fisikoen egokitzapena honako aurrekontu-zerrenda honen arabera egingo dira:

12.– Régimen e interpretación del convenio.

El presente convenio tiene naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico aplicable. Las cuestiones derivadas de este convenio serán en última, conocidas y resueltas por los tribunales contencioso-administrativos competentes.

Y en prueba de conformidad y aceptación de cuanto queda expresado, otorgan el presente documento y lo firman por duplicado en el lugar y fechas señalados en el encabezamiento.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

El Rector de la Universidad del País Vasco,
IÑAKI GOIRIZELAIA ORDORIKA.

ANEXO I

La adquisición de equipamiento científico y la realización de las obras de adecuación de los espacios físicos se hará de acuerdo a la siguiente relación presupuestaria:

KONTZEPTUAK	Finantzaketa (eurotan)
1. Gune fisikoak egokitzeko obrak	876.428,46
2. Arina konputazio-klusterra handitzea	190.964,97
3. X izpien fluoreszentzia-espektrometroa	187.348,57
4. ICPMS bidezko digestiorako eta inorganiko-analisirako mikrouhin-makina	22.529,14
5. Konposatu organikoak erauzteko mikrouhin-makina	28.196,91
6. Indukzio bidez atrakatutako plasma eta masa-detektagailua dituen igorpen atomikoko espektrometroa (ICPMS)	94.831,35
7. Masa-espektrometroa	481.259,39
8. Errendimendu handiko fluxu analizagailua duen zitometroa	141.457,63
9. Bioanalizagailua	36.183,82
10. Tutu automatikoen maneigailua	35.068,72
11. Pirosekuentziadorea	108.487,28
12. P3 laborategia ADN bankurako	556.497,17
13. Auzitegi-entomologiako laborategia	240.746,59
GUZTIRA	3.000.000,00

CONCEPTOS	*Financiación (euros)*
1. Obras de acondicionamiento de espacios físicos	*876.428,46*
2. Ampliación del cluster de computación Arina	*190.964,97*
3. Espectrómetro de fluorescencia de rayos X	*187.348,57*
4. Microondas para la digestión y análisis de inorgánicos por ICPMS	*22.529,14*
5. Microondas para extracción de compuestos orgánicos	*28.196,91*
6. Espectrómetro de emisión atómica con plasma acoplado inductivamente y con detector de masas (ICPMS)	*94.831,35*
7. Espectrómetro de masas	*481.259,39*
8. Citómetro de flujo analizador de alto rendimiento	*141.457,63*
9. Bioanalizador	*36.183,82*
10. Manipulador de tubos automático	*35.068,72*
11. Pirosecuenciador	*108.487,28*
12. Laboratorio P3 para Banco de ADN	*556.497,17*
13. Laboratorio de Entomología Forense	*240.746,59*
TOTAL	*3.000.000,00*

IV. ERANSKINA JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN URTARRILAREN 13KO 1/2010 EBAZPENARENA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK ETA VITORIA-GASTEIZKO UDALAK HIRIKO TRENBIDE-SAREA BIRMOLDATZEKO PROIEKTUAK AURREIKUSITAKO LEKURAKO GELTOKI INTERMODAL BATEN BEHARRAK AZTERTU ETA DISEINUAREN AURREPROIEKTUA EGITEKO SINATUTAKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN ALDAKETA

Vitoria-Gasteiz, 2009ko apirilaren 20a.

ELKARTU DIRA

Nuria López de Guereñu Ansola andrea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Garraio eta Herri Lanetako sailburua.

Xabier Agirre López jauna, Arabako Lurralde Historikoko diputatu nagusia.

Patxi Lazcoz Baigorri jauna, Vitoria-Gasteizko alkate-udalburua.

PARTE HARTU DUTE

Nuria López de Guereñu Ansola andreak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko Garraio eta Herri Lanetako sailburu den heinean, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2009ko otsailaren 24an izandako bilkuran horretarako baimena emanda.

Xabier Agirre López jaunak, Arabako Lurralde Historikoko diputatu nagusiak, Foru Aldundia ordezkatzeko eman zaion legezko gaitasuna baliatuz.

Patxi Lazcoz Baigorri jaunak, Vitoria-Gasteizko alkate-udalburuak, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluak udalaren legezko ordezkari gisa jarduteko ematen dion ahalmena erabiliz.

Erakundeek, 2007ko maiatzaren 24an hiriko trenbide-sarea birmoldatzeko proiektuak aurreikusitako lekurako geltoki intermodal baten beharrak aztertu eta diseinuaren aurreproiektua egiteko sinatutako lankidetza-hitzarmena, nork bere administrazioaren izenean, aldatzeko behar den gaitasuna onartzen diote elkarri, eta horretarako:

ANEXO IV A LA RESOLUCIÓN 1/2010, DE 13 DE ENERO, DEL DIRECTOR DE LA SECRETARÍA DEL GOBIERNO Y DE RELACIONES CON EL PARLAMENTO

MODIFICACIÓN DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO Y EL AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ, PARA EL ESTUDIO DE NECESIDADES Y EL ANTEPROYECTO DE DISEÑO DE UNA ESTACIÓN INTERMODAL EN EL EMPLAZAMIENTO PREVISTO POR LA REMODELACIÓN DE LA RED ARTERIAL FERROVIARIA DE LA CIUDAD DE VITORIA-GASTEIZ

En Vitoria-Gasteiz, a 20 de abril de 2009.

REUNIDOS

La Excma. Sra. doña Nuria López de Guereñu Ansola, Consejera de Transportes y Obras Públicas de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El Excmo. Sr. don Xabier Agirre López, Diputado General del Territorio Histórico de Álava.

El Excmo. Sr. don Patxi Lazcoz Baigorri, Alcalde Presidente del Excmo. Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

INTERVIENEN

Dña. Nuria López de Guereñu Ansola, en calidad de Consejera de Transportes y Obras Públicas de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, autorizada para este acto mediante Acuerdo del Consejo de Gobierno de fecha 24 de febrero de 2009.

Don Xabier Agirre López, en calidad de Diputado General del Territorio Histórico de Álava y en ejercicio de la capacidad legal de la Diputación Foral de Álava.

Don Patxi Lazcoz Baigorri, en calidad de Alcalde del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y en ejercicio de la capacidad legal de representación del Ayuntamiento que le confiere el artículo 21 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local.

Los reunidos se reconocen mutuamente la capacidad necesaria para el otorgamiento en nombre de sus respectivas Administraciones de la presente modificacion del convenio de colaboracion suscrito el 24 de mayo de 2007, para el estudio de necesidades y el anteproyecto de diseño de una estación intermodal en el emplazamiento previsto por la remodelación de la red arterial ferroviaria de la ciudad de Vitoria-Gasteiz, y a tal efecto:

ADIERAZI DUTE

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen esklusiboa du lurraldearen antolamendu eta hirigintzan, herri lan eta lurreko garraioan, eta abiapuntua eta helmuga erkidego barruan duten bidaiari eta salgaien garraioaren antolamenduan (horrek ezertan galarazi gabe Estatuak berak zuzenean burutzeko gordetzen dituenak), eta, oro har, erkidegoaren garapen ekonomikoa sustatzea eta lurraldea antolatzea helburu duten eskumenen titular da (ikus Euskal Herrirako Autonomia Estatutuaren 10.31, 10.32, 10.33 eta 12.9 artikuluak).

Bigarrena.– Vitoria-Gasteizko Udalak, Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko legedian ezarritako moduan, besteak beste honako gai hauetako eskumenak ditu: herri barruko bideetan ibilgailuen eta pertsonen zirkulazioa antolatzea; hirigintzaren antolamendua, kudeaketa, gauzatzea eta diziplina; eta bidaiarientzako garraio publikoa (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2 artikulua).

Hirugarrena.– Errepideko Bidaiari Garraioaren martxoaren 18ko 4/2004 Legearen 4. artikuluak, Arabako Foru Aldundiari ematen dio bidaiari-geltokien gaineko plangintza garatu eta herri arteko garraioaren jarduteko administrazio-titulu gaitzaileak emateko eskumena. Gainera, 44. artikuluaren arabera, inon geltokia jartzekotan dagokion foru-aldundiaren aurrez aldeko onespena beharko da; foru-aldundiak finantza-ekarpenak egin ahal izango ditu, eta hala bada, administrazio-kudeaketan parte hartu.

Laugarrena.– Estatuko Administrazio Orokorraren eskumen esklusibokoak dira interes orokorreko herri-lanak eta autonomia-erkidego bat baino gehiagoren lurraldeak zeharkatzen dituzten trenbideak eta lurreko garraioak, hala ezartzen baitu Konstituzioak 149.1.21 eta 149.1.24 artikuluetan, eta, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berriaren eraikuntzaren eskumena ere hari dagokio.

Bosgarrena.– Abiadura handiko sarearekin behar bezala lotzeko Vitoria-Gasteizko egungo trenbidesarea birmoldatzea pentsatu da. Birmoldaketa horrekin gainera, bidaiarien zerbitzuak hobetu egingo dira, egungo tren-geltokia hiriaren iparraldean sortzen ari den erdigune berrira aldatuz eta bidaiarientzako geltoki intermodal bihurtuz. Geltoki berri hori trenzerbitzuek izango bide duten hazkundeari behar bezala erantzuteko modukoa izango da, eta garraiobide batzuetatik besteetara (herri barruko nahiz herriz kanpoko izan), azkar eta eroso aldatzeko aukera emango du.

MANIFIESTAN

Primero.– Que la Comunidad Autónoma del País Vasco es titular de competencias en ordenación del territorio y urbanismo, en obras públicas y transporte terrestre, y ordenación del transporte de mercancías y viajeros que tengan su origen y destino en el ámbito de la Comunidad Autónoma, sin perjuicio de la ejecución directa que se reserve el Estado, y de forma general, de aquellas competencias que tienen como objeto el fomento del desarrollo económico de la Comunidad y su contribución a objetivos de Ordenación del Territorio (artículos 10.31, 10.32, 10.33 y 12.9 del Estatuto de Autonomía del País Vasco).

Segundo.– Que el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz ejerce, en los términos de la legislación del Estado y de la Comunidad Autónoma, competencias en materia de ordenación del tráfico de vehículos y personas en las vías urbanas, y de ordenación, gestión, ejecución y disciplina urbanística y transporte público de viajeros, conforme al artículo 25.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las bases del Régimen Local.

Tercero.– Que la Diputación Foral de Álava, según la Ley 4/2004, de 18 de marzo, de Transportes de viajeros por Carretera plantea en su artículo 4 la competencia de las Diputaciones Forales en materia de desarrollo de la planificación en relación con las estaciones de viajeros y la expedición de títulos habilitantes para el ejercicio de la actividad del transporte interurbano. Además, el artículo 44 dispone que el establecimiento de estaciones deberá ser previamente aprobado por la diputación foral correspondiente, pudiendo realizar aportaciones financieras y participar en la gestión administrativa.

Cuarto.– Que la Administración General del Estado ostenta competencias exclusivas en materia de obras públicas de interés general y en ferrocarriles y transportes terrestres que transcurran por el territorio de más de una comunidad autónoma, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 149.1.21.º y 149.1.24.º de la Constitución, siendo responsables de la construcción de la Nueva Red Ferroviaria en el País Vasco («Y» vasca).

Quinto.– Que se está planteando la remodelación de la red arterial ferroviaria de la ciudad de Vitoria-Gasteiz para su incorporación a la red de alta velocidad, previéndose mejorar los servicios de viajeros, mediante el traslado de la actual estación de ferrocarril al nuevo área de centralidad surgido al Norte de la ciudad y su transformación en una estación intermodal de pasajeros, capaz de atender en condiciones adecuadas el previsible crecimiento de los servicios ferroviarios y permitir en condiciones de rapidez y comodidad el intercambio con los restantes modos de transporte, urbanos e interurbanos.

Seigarrena.– Aurrekari horiekin eta inguru berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Garraio eta Herri Lan Sailaren bidez, eta Vitoria-Gasteizko Udalak lankidetza-hitzarmen bat sinatu zuten 2007ko maiatzaren 24an, hiriko trenbidesarea birmoldatzeko proiektuak aurreikusitako lekurako geltoki intermodal baten beharrak aztertu eta diseinuaren aurreproiektua egiteko.

Hitzarmenaren hirugarren klausularen arabera, geltoki intermoldaren inguruko azterlanak eta diseinuaren aurreproiektua egiteko seiehun mila (600.000) euro inguru beharko ziren, BEZa barne zela; eta diru kopuru hori Udalaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aurrekontuetatik ordaintzekoa zen.

Laugarren klausulan aurreikusten zen Euskal Autonomia Erkidegoko Garraio eta Herri Lan Sailak aurrekontuaren % 50 jarriko zuela (BEZa barne zela), hau da, gehienez ere hirurehun mila (300.000) euro.

Aldeek hitzarmenaren xedea zabaldu beharra dagoela ikusten dute, eta eraikuntza-proiektua idaztea ere helburuen artean sartzea.

Horrela bada, Arabako Foru Aldundia ere sartzen bada, finantza-kargak berriro banatu beharko dira, eta geltoki intermodala egiteko azterlanak, aurreproiektua eta eraikuntza-proiektuaren kostua, bederatziehun mila (900.000) eurokoa, BEZa barne, Udalaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuetatik ordainduko dira, hitzarmen honetan ezarriko den eran.

Beraz, aldeek honako hau

ERABAKI DUTE:

Lehenengoa.– 2007ko maiatzaren 24ko hitzarmenaren 1. klausula aldatu, eta honela uztea:

Lankidetza-hitzarmen honen ondorioz egingo diren jarduketen helburua izango da Vitoria-Gasteizko Latinoamerika plazaren eta Arriagako parkearen ingururako bidaiarientzako geltoki intermodal baten beharrak aztertu eta, horren arabera, diseinuaren aurreproiektu bat eta eraikuntza-proiektua egitea; geltokiak tren-zerbitzuentzat aurreikusten den hazkundeari erantzuteko eta garraiobide batzuetatik besteetara eroso aldatzeko modukoa izan beharko du.

Bigarrena.– 2007ko maiatzaren 24ko hitzarmenaren 2. klausula aldatu, eta honela uztea:

Sexto.– Que con estos antecedentes y en el mismo entorno, con fecha 24 de mayo de 2007, la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, a través del Departamento de Transportes y Obras Públicas, y el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz suscribieron un Convenio de Colaboración para el estudio de necesidades y el anteproyecto de diseño de una estación intermodal en el emplazamiento previsto por la remodelación de la red arterial ferroviaria de la ciudad de Vitoria-Gasteiz.

El convenio preveía en su cláusula tercera, que el coste de la realización de los estudios y del anteproyecto de diseño de una estación intermodal se estimaba en seiscientos mil (600.000) euros, IVA incluído, que se financiarían con cargo a los recursos presupuestarios Municipales y de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En la cláusula cuarta preveía que por parte del Departamento de Transportes y Obras Públicas de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la aportación del 50% del coste estimado, IVA incluido, que se fijaba en un máximo de trescientos mil (300.000) euros.

Las partes consideran necesario ampliar el alcance del Convenio con la inclusión de la redacción del proyecto constructivo.

De esta manera, la incorporación de la Diputación Foral de Álava a este Convenio produce una redistribución de las cargas financieras de manera que la inversión en la realización de los estudios, del anteproyecto y del proyecto constructivo de diseño de una estación intermodal se eleva a novecientos mil (900.000) euros, IVA incluido, que se financiarían con cargo a los recursos presupuestarios Municipales, de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de la Diputación Foral de Álava en los términos que se establecen en este Convenio.

En consecuencia, las partes

ACUERDAN

Primero.– Modificar la cláusula 1.ª del Convenio de 24 de mayo de 2007, que quedará redactada de la siguiente manera:

«Las actuaciones contempladas en el presente Convenio de Colaboración responderán al objetivo de analizar las necesidades, realizar un anteproyecto de diseño y el proyecto de construcción de una estación intermodal de pasajeros, ubicada en la Plaza de América Latina y Parque de Arriaga de la ciudad, capaz de atender el previsible crecimiento de los servicios ferroviarios y permitir el intercambio con los restantes modos de transporte».

Segundo.– Modificar la cláusula 2.ª del Convenio de 24 de mayo de 2007, cuyo párrafo primero quedará redactado de la siguiente manera:

«Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Arabako Foru Aldundiak eta Vitoria-Gasteizko Udalak, beren zerbitzu tekniko, sozietate eta ente publikoen esku dauzkaten datu eta informazio tekniko baliagarri guztia hitzarmena mamitu behar dutenen esku jarriko dute, baldin eta Vitoria-Gasteizko bidaiarientzako geltoki intermodalaren dimentsioak eta alternatibak aztertzeko, eta diseinuaren aurreproiektua eta eraikuntza-proiektua egiteko beharrezkoak badira».

Hirugarrena.– 2007ko maiatzaren 24ko hitzarmenaren 3. klausula aldatu, eta honela uztea:

«Vitoria-Gasteizko Udalak, hasteko, geltoki intermodalaren neurriak hobeto zehazteko behar diren eskaera-azterlanak eginaraziko ditu, eta ondoren, horri hobekien erantzuten dion aukeraren diseinuaren aurreproiektua egingo du, eta azkenik, eraikuntza-proiektua.

Geltoki intermoldaren inguruko azterlanak, diseinuaren aurreproiektua eta eraikuntza-proiektua egiteko bederatziehun mila (900.000) euro beharko dira, BEZa barne dela; eta diru kopuru hori Udalaren, Foru Aldundiaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aurrekontuetatik ordainduko da, hitzarmen honetan ezarritako eran».

Laugarrena.– 2007ko maiatzaren 24ko hitzarmenaren 4. klausula aldatu, eta honela uztea:

«Aldeen betebeharrak:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Garraio eta Herri Lan Sailaren bidez, hitz ematen du hitzarmenaren xedea finantzatzeko, kostuaren heren bat jarriko duela, hau da, gehienez ere (BEZa barne dela), hirurehun mila (300.000) euro. Diru kopuru hori bere aurrekontuetatik ordainduko du, eta dagokionean, dirua baduela eta erabilgarri duela egiaztatu beharko du.

Arabako Foru Aldundiak, Herrilan eta Garraio Sailaren bidez, hitz ematen du hitzarmenaren xedea finantzatzeko, kostuaren heren bat jarriko duela, hau da, gehienez ere (BEZa barne dela), hirurehun mila (300.000) euro. Diru kopuru hori 2009ko aurrekontuetatik ordainduko du, eta, dagokionean, dirua baduela eta erabilgarri duela egiaztatu beharko du.

Vitoria-Gasteizko Udalak hitz ematen du hitzarmenaren xedea finantzatzeko, kostuaren heren bat jarriko duela, hau da, gehienez ere (BEZa barne dela), hirurehun mila (300.000) euro. Diru kopuru hori Udalaren aurrekontuetatik ordainduko du, eta dagokionean, dirua baduela eta erabilgarri duela egiaztatu beharko du».

«La Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la Diputación Foral de Álava y el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz pondrán a disposición del proyecto los datos y la información técnica pertinente de que dispongan sus servicios técnicos y las sociedades y entes públicos de su titularidad, y sean necesarios para el análisis del dimensionamiento, estudio de alternativas, el anteproyecto y el proyecto de diseño de una futura estación intermodal de pasajeros de Vitoria-Gasteiz».

Tercero.– Modificar la cláusula 3.ª del Convenio de 24 de mayo de 2007, cuyos párrafos segundo y tercero quedarán redactados de la siguiente manera:

«El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz encargará en primer lugar los estudios de demanda precisos para el mejor dimensionamiento de una futura estación intermodal, el anteproyecto de diseño de la mejor solución para la misma y, finalmente, el Proyecto Constructivo.

El coste de la realización de los estudios del anteproyecto de diseño y el proyecto de construcción de una estación intermodal se evalúa en novecientos mil (900.000) euros, IVA incluido, que se financiarán con cargo a los recursos presupuestarios Municipales, Forales y de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en los términos que se establecen en este Convenio».

Cuarto.– Modificar la cláusula 4.ª del Convenio de 24 de mayo de 2007, que quedará redactada de la siguiente manera:

«Obligaciones de las partes:

La Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, a través del Departamento de Transportes y Obras Públicas se compromete a aportar, a efectos de financiar el objeto de este Convenio, un tercio del coste hasta la cantidad máxima de trescientos mil (300.000) euros, IVA incluido, que se financiarán con cargo a sus recursos presupuestarios, y cuya existencia y disponibilidad será certificada en los momentos oportunos.

La Diputación Foral de Álava, a través del Departamento de Obras Públicas y Transportes se compromete a aportar, a efectos de financiar el objeto de este Convenio un tercio del coste hasta la cantidad máxima de trescientos mil (300.000) euros, IVA incluido, que se financiarán con cargo a sus recursos presupuestarios correspondientes a la anualidad del ejercicio 2009, y cuya existencia y disponibilidad será certificada en los momentos oportunos.

El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz se compromete a aportar, a efectos de financiar el objeto de este convenio, un tercio del coste hasta la cantidad máxima de trescientos mil (300.000) euros, IVA incluido, que se financiarán con cargo a sus recursos presupuestarios, y cuya existencia y disponibilidad será certificada en los momentos oportunos».

Bosgarrena.– 2007ko maiatzaren 24ko hitzarmenaren 5. klausula aldatu, eta honela uztea:

«Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 93.5 artikuluan ezarritako ondorioetarako, kontratazio espedienteak onartu baino, lehen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Garraio eta Herri Lan Sailak eta Arabako Foru Aldundiak laugarren klausularen arabera bere gain hartutako konpromisoei aurre egiteko kreditu egokia eta behar bestekoa badutela adierazten duten ziurtagiriak igorri beharko dizkiote Vitoria-Gasteizko Udalari, Udalak eskatu eta hurrengo hamar eguneko epean».

«Alde bakoitzak finantzaketan duen parte-hartzearen arabera egingo ditu azterlan, aurreproiektu eta eraikuntza-proiekturako ordainketak, betiere norberak bere gain hartutako parte-hartze ehunekoaren arabera eta hitzartutakoa agortu arte. Horretarako, Vitoria-Gasteizko Udalak zenbateko ordainketa aurreikusten duen eta hortik Garraio eta Herri Lan Sailari eta Arabako Foru Aldundiari zenbat dagokien adieraziko die; eta sasoiz adierazi ere, kontratua egin duen Administrazioak, berandutu gabe, ordainketak garaiz egin ditzan».

Seigarrena.– 2007ko maiatzaren 24ko hitzarmenaren 6. klausula aldatu, eta honela uztea:

«Sinatzaileek ordezkatzen dituzten administrazioek jarraipenerako erakunde arteko batzorde misto bat osatuko dute, beharrak aztertzearen inguruko eta geltoki intermodalaren plangintzaren gaineko jarduketen koordinazioa errazteko. Batzordea sei kidek osatuko dute: bi, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Garraio eta Herri Lan Sailaren ordezkariak; bi, Arabako Foru Aldundikoarenak, eta beste bi, Vitoria-Gasteizko Udalarenak. Ordezkariak alde bakoitzetik hitzarmena sinatzen dutenek izendatuko dituzte».

1.– Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lanetako sailburua izango du lehendakari batzorde mistoak, eta idazkari, Garraio eta Herri Lanetako sailburuordea, edo horiek izendatzen dituztenak.

Jarraipenerako erakundeen arteko batzorde mistoaren egitekoak:

a) Hitzarmenean aurreikusitako jarduketak behar bezala burutzen diren ikusteko jarraipen-lana egitea; eta garraioen eta trenbideen arloan dituzten eskumenen ondorioz, Administrazio parte-hartzaileen nahiz Estatuko Administrazioaren esku dauden jarduketak burutzeko behar den informazio baliagarria eskuratzea; eta bakoitzak bere konpromisoak egoki betetzen

Quinto.– Modificar la cláusula 5.ª del Convenio de 24 de mayo de 2007, cuyos párrafos primero y segundo quedarán redactados de la siguiente manera:

«A los efectos de lo previsto en el artículo 93.5 de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, con anterioridad a la aprobación de los expedientes de contratación, el Departamento de Transportes y Obras Públicas de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y la Diputación Foral de Álava, enviarán al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz los certificados de la existencia del crédito adecuado y suficiente para la cobertura de los compromisos financieros que asumen en la cláusula cuarta, en los diez días siguientes a que le sean solicitados por el Ayuntamiento».

«Hasta el límite de los compromisos financieros asumidos, el pago de los estudios, del anteproyecto y el proyecto constructivo se realizará por cada una de las partes en las cuotas de participación establecidas hasta el importe máximo comprometido. A tales efectos, por parte del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz se remitirá al Departamento de Transportes y Obras Públicas y a la Diputación Foral de Álava el detalle de los pagos previstos con indicación del importe a aportar, y con la antelación suficiente que permita efectuar los pagos sin retraso, evitando la incursión en mora de la Administración contratante».

Sexto.– Modificar la cláusula 6.ª del Convenio de 24 de mayo de 2007, que quedará redactada de la siguiente manera:

«Las administraciones representadas por los firmantes constituirán una Comisión Mixta de Seguimiento Interinstitucional, con el fin de facilitar la coordinación de las actuaciones correspondientes al análisis de necesidades y a la planificación de una futura estación intermodal, compuesta por seis representantes: dos del Departamento de Transportes y Obras Públicas de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, dos de la Diputación Foral de Álava y dos del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, que serán designados, respectivamente, por las partes firmantes del presente Convenio.

1.– La presidencia de la Comisión Mixta recaerá en la Consejera de Transportes y Obras Públicas del Gobierno Vasco, y la secretaría de la misma en el Viceconsejero de Transportes y Obras Públicas, o en las personas que ellos designen.

Serán funciones de la Comisión Mixta de Seguimiento Interinstitucional:

a) Llevar a cabo el seguimiento de la normal ejecución de las actuaciones previstas en el presente Convenio, posibilitando la obtención de información relevante para la correcta ejecución de las actuaciones prevista tanto de las Administraciones intervinientes como de la Administración del Estado, en virtud de las competencias que ostentan en materia de trans-

dituela egiaztatzea, eta alde bakoitzari dagozkion izapideak arinago egin daitezen saiatzea.

b) Egin beharreko lanak, azterlanak eta aurreproiektuak zehaztea, hitzarmenaren bigarren klausulan ezarri bezala.

c) Hitzarmenaren xede diren lanak beteko direla bermatzeko behar diren neurrien berri eman eta proposatzea.

d) Hitzarmena interpretatu eta burutzerakoan sortzen diren arazoei konponbide bat bilatzea.

e) Batzorde teknikoa zuzentzea.

2.– Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, jarraipenerako erakundeen arteko batzorde mistoak lau hilabetean behin egingo ditu ohiko bilerak, eta alderdietako edozeinek hala eskatzen badu, lanak ondo joan daitezen behar den guztietan. Bilkura egiteko eta erabakiak hartzeko kideen gehiengoa beharko da. Bozen artean berdinketa gertatzen bada, lehendakariak ebatziko du kalitateko botoaren bidez.

3.– Jarraipenerako erakundeen arteko batzorde mistoak batzorde tekniko bat izendatuko du, hitzarmen honen alderdi teknikoen jarraipena eta kontrola egiteko; batzorde hori ere sei kidek osatuko dute: bi, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Garraio eta Herri Lan Sailaren ordezkariak; bi, Arabako Foru Aldundikoarenak, eta beste bi, Vitoria-Gasteizko Udalarenak. Ordezkariak alde bakoitzetik hitzarmena sinatzen dutenek izendatuko dituzte.

Batzorde teknikoaren egitekoak hauek izango dira:

a) Hitzarmenean aurreikusitako jarduketak behar bezala burutzen direla kontrolatu eta jarraipena egitea.

b) Zuzendaritza teknikoaz arduratzea.

c) Aurkeztutako eskaintzak aztertu, eta azterlanak kontratatzeko ebazpenerako txostenak egitea.

d) Egin behar diren izapidaketak bizkor egiteko dauden oztopoak kentzen saiatzea.

e) Hitzarmenaren xede diren jarduketak burutuko direla bermatzeko behar diren txostenak egin eta neurriak proposatzea, batez ere, urtekoak egokitu beharreko kasuetan.

4.– Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, batzorde teknikoak bi hilabetean behin egingo ditu ohiko bilerak, eta alderdietako edozeinek hala eskatzen badu, lanak ondo joan daitezen behar den guztietan.

portes y ferrocarriles, así como el adecuado cumplimiento de los compromisos respectivos, tratando de agilizar el cumplimiento de los trámites que correspondan a cada una de las partes.

b) Las relacionadas con la determinación de los trabajos, estudios y anteproyectos a realizar, en los términos que se fijan en la cláusula segunda del Convenio.

c) Informar y proponer las medidas precisas para garantizar el cumplimiento de las actuaciones objeto del presente Convenio.

d) Procurar la resolución de los problemas de interpretación y de ejecución que pueda plantear en Convenio.

e) Dirigir la Comisión Técnica.

2.– Durante la vigencia del Convenio la Comisión Mixta de Seguimiento Interinstitucional se reunirá con carácter ordinario cada cuatro meses y a propuesta de cualquiera de las partes se reunirá siempre que lo requiera la buena marcha de las actuaciones. Los quórum de reunión y de adopción de acuerdos serán los de mayoría de sus miembros. En caso de empate, éste se resolverá por el voto de calidad de la presidencia.

3.– La Comisión Mixta de Seguimiento Interinstitucional nombrará una Comisión Técnica encargada del seguimiento y control de los aspectos técnicos del presente Convenio, compuesta por seis representantes: dos del Departamento de Transportes y Obras Públicas de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, dos de la Diputación Foral de Álava y dos del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, que serán designados, respectivamente, por las partes firmantes del presente Convenio.

Las funciones de la Comisión Técnica serán las siguientes:

a) Llevar a cabo el control y seguimiento para la normal ejecución de todas las actuaciones previstas en el Convenio.

b) Llevar una codirección técnica de estudio.

c) Examinar las ofertas recibidas e informar sobre la resolución para la contratación de los estudios a realizar.

d) Facilitar la remoción de los obstáculos que entorpezcan la celeridad de los trámites requeridos en cada caso.

e) Informar y proponer las medidas precisas para garantizar el cumplimiento de las actuaciones objeto del convenio, especialmente en los supuestos de reajuste de anualidades presupuestarias.

4.– Durante la vigencia del Convenio la Comisión Técnica se reunirá con carácter ordinario cada dos meses y a propuesta de cualquiera de las partes se reunirá siempre que lo requiera la buena marcha de los

Vitoria-Gasteizko Udalak hartuko du, Zabalgunea 21 sozietatearen bidez, Batzordearen lehendakaritzaren eta idazkaritzaren ardura.

5.– Hitzarmenak bi batzordeentzako berariaz jasotzen ez dituen gaietan, Herri-Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. tituluko II. Kapituluan kide anitzeko organoentzat ezarritako araubidea bete beharko da».

Zazpigarrena.– 2007ko maiatzaren 24ko hitzarmenaren 7. klausula aldatu, eta honela uztea:

«Hitzarmenak ez ditu parte-hartzaileak behartuko nork bere aginpideei uko egin edo haiek aldatzera, eta hitzarmenaren ondorio diren konpromisoengatiko erantzukizunak bakarrik hartuko dituzte bere gain, hau da, Vitoria-Gasteizko Udalean hiriko trenbidesarea birmoldatzeko proiektuak aurreikusitako lekurako geltoki intermodal baten beharrak aztertu, eta diseinuaren aurreproiektua eta eraikuntza-proiektua egiteko lankidetza-hitzarmenaren ondorio direnak soilik».

Eta horren guztiaren ondorioz eta harekin bat, hitzarmenaren hiru ale sinatu dituzte aldeek idazpuruan adierazitako leku eta egunean.

Eusko Jaurlaritzako Garraio eta
Herri Lanetako sailburua,
NURIA LÓPEZ DE GUEREÑU ANSOLA.

Arabako diputatu nagusia,
XABIER AGIRRE LÓPEZ.

Vitoria-Gasteizko alkate-udalburua,
PATXI LAZCOZ BAIGORRI.

trabajos, correspondiendo la presidencia y la secretaría de la misma al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz a través de la sociedad Ensanche XXI.

5.– En lo no previsto expresamente en el Convenio para ambas comisiones, les será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulado en el capítulo II del título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común».

Séptimo.– Modificar la cláusula 7.ª del Convenio de 24 de mayo de 2007, cuyo párrafo 1.º quedará redactado de la siguiente manera:

«El Convenio no supondrá renuncia ni alteración de las competencias de las partes intervinientes, que asumen únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contratan en virtud del presente Convenio que se limita exclusivamente a la colaboración para el estudio de necesidades, el Anteproyecto de diseño y el proyecto constructivo de una estación intermodal en el emplazamiento previsto por la remodelación de la red arterial ferroviaria de la ciudad de Vitoria-Gasteiz».

